

Jose txo

Jose Manuel Etxeita

1909

Josecho (Bizkaiko euskeraz), Jose Manuel Etxeita. Florentino Elosu, 1909



Egun baten osagilleak, bere agerraldian, esaeutsan Txomiñi:

—*Ola Chomin! Cómo vamos?*

—Osagille jauna, eztot uste izan erderazkoa ziñeanik, izatez Mundakarra izan ezkeru.

—Zer gauza txar dakar-ba, erdera berba egitteak adituten daben tokian?

—Zer gauza txar dakarren? Zuk lez, euskaldun guztiok erdera berba egingo bageunke, laster amaittuko litzake euskaldun da euskal-erriaren izatea; zegaittik, euskera barik, ezin egon leitteke euskaldunik ez euskal-erririk. Orduan erdaldunak izango gintzakez guztiok.

—Adimen onekoa zara, Txomin.

—Nik eztakidaz baserriko lanak baño; alan-bere, neure zentzun apurtxoak diraust, euskaldunak alkarregaz ezleukiela egin bear euskera baño beste berbakuntzarik. Ona da erdera jakittea erdaldunakaz berba egitteko, eurakazko artu-emonetan edo salerosietan; baño euskaldunak alkarregaz, beti egin bear leukie euskeraz. Nik ikusten dodaz Mundaka ta Bermeoko neska-mutillak kanpoetako ikastetxietan egon direanak, Ondartzararte egurastutera datozeanean, zelan erdera gogoz berbetan etorten direan, geuk legez euskera dakienak; erdera dakiela erakustearren, arrokeriak eragitten deuten okerkeria. Orrelangoak eztakie nortzuk garean, nun bizi garean, asabak euki genduzanik, ez euren berbetea ta ekanduak aittarik- seme beti maitte izan bear doguzanik. Ni zarra naz, da eztot ikusiko, baño olan jarraituten bada, euskaldunak alkarregaz erdera berba egitten, laster joango dira ikusbidetik, euskerea, euskaldunak eta euskal-erria, guztia biurtuaz erderara: geu izango gara errudunak, alkarregaz erdera berba egitten dogulako.

—Ikastoletan egon dan gizon jakitun bat dirudizu, Txomin.

—Ezta zetan izan jakittuna, orrek egiok bururatuteko.

—Agur, Txomin; orain Jose txo ondo doa, ta iru egunik baten etorriko naz.

—Agur-ba, Kerman, bakizu urrengoan etxe onetan euskera egin bearko dozuna.

—Ja... ja... ja, bai, Txomin.

Txomiñek, erasti atan kantaten ebazan, urrengo doazan koplak, berak asmauak:

Bizi-bedi euskera maittagarria

Laztan dot nik amatxo,
Geure euskerea,
Iñun bere eztago,
Berbeta ohea.
Niretzat izaten da,
Eztizko berbea,
Esaten dodanean,
Amatxo maitea!

Euskaldunen artean,
Berbeta gozoa,
Asabak itxiriko,
Kutun-kutuntxo
Baita biotzetako,
Pozgarri osoa,
Esaten dogunean,
Neure laztantxo.

Guztiok egin daigun,
Gogotsu euskera,
Oso galdu eztaigun,
Geure berbaera.
Erazagututeko,
Asaben antzera,
Euskal-endea dala,
Gure izakera.

Izan gura badogu,
Asaben ordeak,
Euren errietako,
Zentzundun semeak;
Jarraitu bear doguz,
Euskaldun bideak,
Enda, berbakuntza, ta,
Ekandu maitteak.